

EMAKUMEZKOEN 2014KO BAZTANGO BINAKAKO FRONTENIS TXAPELKETA

Izena ematea:

- Otsailaren 3ko goizeko 8ak arte.
- Nola: Datuak igorriko dira kultura@baztangoudala.eu posta elektronikora.
- Datuak: Bikoteko bi pertsonen izen-abizenak, herria, telefonoa eta posta elektronikoa eta, ze mailatan izena ematen duen bikoteak.

Txapelketako mailak:

- Mailak: 1. eta 2. maila.

Arauk:

1. Txapelketak 1. eta 2. maila izanen ditu. Parte-hartzaileek, izena ematerakoan, zehaztuko dute zein mailatan parte hartuko duten.
2. Partidak non eta noiz:
 - Partidak Oronozko, Arizkungo, Erratzuko eta Amaiurko frontoietan jokatuko dira. Dena den, partideko bi bikoteak ados jarriz gero, Baztango bertze edozein frontoitan jokatzen ahal dira. Argia, edozein frontoitan dela, baita Oronozkoan, Arizkungoan, Erratzukoan eta Amaiurkoan ere, jokalarien kontu izanen da. Frontoiak ez dira erreserbatuak egonen.
 - Partidetako egun ofiziala larunbata izanen da. Dena den, partideko bi bikoteak ados jarriz gero, partida bertze egun batean jokatu daiteke, baina kontuan hartu behar da ezin izanen dela, inola ere, gibelatu. Horregatik, partidak egutegian paratutako larunbatetan ez baldin badira jokatzen, dagokion larunbat hori baino lehenago jokatu beharko dira.
 - Finalurrekoak eta finalak antolatzaileek seinalatzen duten lekuetan, egunetan eta orduetan jokatuko dira. Ezin izanen da aldaketarik egin.
3. Arau teknikoak
 - Txuriz jantzita jokatuko da.
 - Talde kopurua eta taldeetako bikote kopurua izena eman duten bikote kopuruaren arabera antolatuko dira.
 - Sorteoz erabakiko dira lehendabiziko errondako talde bakoitzeko bikoteak.
 - Lehendabiziko errondan liga moduan jokatuko da, ondokotan kanporaketa sistema segituko da.
 - Sakea 1. mailan 4tik 4ra izanen da eta 2. mailan, berriz, 3tik 3ra; 7a pasa izanen da bi mailatan.
 - Sailkapenerako irizpideak:
 - Partida gehienak irabazi dituenak.
 - Berdinketa baldin bada kontuan hartuko da beren arteko partida.
 - Hala ere berdinketak segitzen baldin bada kontuan hartuko da tantoak alde tantoak kontra.
 - Partida bertan behera uzten dutenei, edozein arrazoia dela, partida galdutzat emanen zaie, momentu horretan zuten tantu alde eta 30 tantu aurkariaren alde.
 - Partidara ez den agertzen bikoteari partida, hori egiten duen lehendabiziko aldia baldin bada, 30-0 galdutzat emanen zaio, eta bigarren aldia baldin bada, berriz, txapelketatik kanpo geldituko da.
 - Txapelketako epaile lanak: partida bakoitzeko bikoteek erabakiko dute nola egin.
 - Materiala: pilotak, paxak, ...Partida bakoitzeko bikoteek paratuko dituzte.
4. Egutegia: Txapelketa otsailaren 8an hasiko da.
5. Ordezkoak:
 - a. Bikoteko partaide batek ezin badu jokatu ordezkoa jartzen ahal du.
 - b. Txapelketako partaide batek ezin du, inola ere, txapelketako bertze partaide bat ordezkatu.
6. Aste bakoitzeko emaitzak. Partida bakoitzeko jokalaria batek ardura hartuko du partidako emaitza bidaltzeko kirol bulegora posta elektronikoen bidez (kultura@baztangoudala.eu) astelehena baino lehen. Hau da, jardunaldia otsailaren 8an bada emaitza guztiak egon beharko dute kirol bulegoan otsailaren 10a baino lehen, bertzenaz, partidari 0-0 emaitza emanen zaio.
7. Antolakuntzaren eta jokalarien arteko harremana posta elektronikoen bidez egingen da.



8. Txapelketaren informazio guztia Baztango Udaleko web orrian jarriko da.
9. Antolatzaileak partaideen baimena du parte-hartzaile bakoitzaren datuak gainerako parte-hartzaileei emateko
10. Antolatzailea ez da txapelketan gerta daitezkeen ez eta ez nahietaz erantzule izanen.
11. Antolatzaileak edozein arau aldatu edota berri bat sortzeko eskubidea du.
12. Arau hauek edota antolakuntzak eskatutakoak betetzen ez dituzten parte-hartzaileak kanporatuak izanen dira.

